

Programazioa  
**Musika**

20

DK  
memoria

24



# Programazioa

## MUSIKA

Ohikoa den bezala, hiru bloke handitan aurkeztu zen Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko Musika programazioa 2024an:

Alde batetik, bertako proposamenak nabarmendu behar dira. 24 bat talde euskaldun igo ziren Victoria Eugenia Antzokiko eszenatokira. **Idoia** eta **Eñaut Elorrieta** adibidez, baita **Gure Ahotsak** zikloaren barruan, **Neomak**, **Merina Gris** eta **Queralt Lahoz** taldeak ere; horiek guztiek eta beste askok erakutsi zuten zer nolako kalitatea duten gure musikariek. Euskal Musikaren ekarpena aitortzen duen **Adarra Saria**, bestalde, **Errobi** taldeak eskuratu zuen, eta ia erabat bete zen aretoa, sari-banaketako egunean eskaini zuen kontzertuan. **Ene Kantak** taldeak, lau


emanaldirekin, eta **Ruper Ordorika** abeslariak ere maila bikaina erakutsi zuten, Antzokiko areto nagusiaren edukieraren %65 betez. **Ricardo Aldarondoren** ekimenak, Eguberrietako **Discos Mon Oncle** kontzertuak, berriro erakarri zuen bere publiko leiala, bertako musikari ugariaren parte-hartzearekin egin zen proposamenaz gozatzera: **Mikel Erentxun**, **Eñaut Elorrieta**, **Sara Zozaya**, **Easo Abesbatza**, **Idoia Asurmendi** eta **Maite Larburu** musikariak izan genituen, besteak beste, Antzoki Zaharreko eszenatokian, Gabon-kanta herrikoien haien bertsioak eskaintzen.



Queralt Lahoz © Inti Gajardo



Idoia



Zaz © Jan Welters - Funnybones

Bestalde, Estatu eta nazioarte mailako musikariei dagokienez, abenduan **Zaz** taldeak eskaini zuen kontzertu intimista nabarmendu behar da, batez ere; erabat bete zuten aretoa. **Ismael Serrano** eta **Yerai Cortes** ere gailendu egin ziren haien gaitasunengatik, **Israel Fernández** eta **Diego el Morao** bezala.

Aurreko urteetan bezala, musika klasikoak ere izan zuen bere tokia **Donostia Musikak (Andoni Mercero, Josetxu Obregón, Conductus ensemble...)** eta Batura musika zikloak sustatutako proposamenei eta Sasibil Elkarte Lirikoak eskainitako zarzuelei esker (*La Taberna del Puerto*, lehenengo seihilekoan, eta *La Revoltosa* eta *El Caserío* azkeneko seihilekoan)


Guztira, 23.000 lagun joan ziren programatutako 55 kontzertuetara.



Israel Fernández © Jokin Fernández



Merina Gris



Ruper Ordorika



Janus Lester



Christina Rosenvinge © Pablo Zamora